

# PUBLICACIONES

### **Iñaki Camino Lertxundi**

#### *Hego-Nafarrera*

Nafarroako Gobernu. Hezkuntza Departamentua Unibertsitaterako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, 2003, 267 orr.  
ISBN: 84-235-2500-7

**D**ialektologiaren ibilbidean, bereziki Nafarrokoari dagokionez, beste urrats garrantzitsu bat betetzen du Caminoren lan honek. Oraingoan, hego-nafarrera da ikerketa helburua. Ikertzaile honek urte anitz daramazki euskal dialektologia ikertzen eta munta handiko lanak utziko dizkigu alor honetan. Hauxe da horietako beste bat, izan ere dialektologiak ere urrats handiak eman ditu azken urteotan, euskararen egoera aldatuz joan den heinean, euskalkien egoerak ere aldaketak jasan ditu eta dialektologiaren inguruko ikerketa zientifikoek ere aldaketa esanguratsuak jasan dituzte.

Jakina denez, XIX. mendean euskalki zabalenerarikoa zen goinafarrera hegoaldekoa; esparru handia hartzen zuena: Orreagatik Itzarbera iparretik hegora joanez eta Goñitik Urrauleraino mendebaldea eta ekialdea hartuz. Baina euskalki honek atzerakada nabarmena jasan du, hainbat tokitan erabat galdu da euskara, nahiz eta testigantza idatziak baditugun. Hauetan oinarritu da Camino, eremu zabal eta anitz honetan dauden joerak aztertzeko helbu-

ruz, alegia alde diakronikoa eta sinkronikoa uztartuz burutu du lan interesgarri hau.

Liburua bi atal nagusitan banatua dago, lehenengo zatia, –bederatz kapitulu– hizkuntza-azterketaren ingurukoak dira eta bigarrenak, corpusaren atala osatzen du.

Bi atal hauek uztartuz lan dialektologiko baten helburuak betetzen dira, alegia, lehenik hizkera deskribatzea, eta aldi berean, hizkera horrek inguruetako besteekin zein kokagune duen zehatz-mehatz aztertzea.

Lan guztian zehar, ikerketa dialektologikoaren helburu izan behar duen ikuspuntu kontrastatiboa hartzen da kontuan. Horrela, azpieuskalki honen barreneko hizkeretan sakontzen da: Itzarbekoan, Gesalazkoan, Olloibarkoan, Arakilgoan, Oltzakoan, Goñerrikoan, Eguesibarkoan, Ezkabartekoan, Hego Esteribarkoan, Erroibarkoan, Artzibarkoan eta Aezkoakoan. Jakina denez, egitekoa handia da, hego-nafarrerak eremu handia hartzen baitu.

Hainbat toki erdaratu direnez, hobekien ezagutzen dituen eremuetara bideratu du ikerketa. Euskal

Herriko ikertzaileen berri badakar, horrela, banan-bana hego nafarraz arduratu direnen irizpideak eta ezaugarrien berri bildu eta eman du. Iruñeko euskarari ere egin dio tokia, ataltxo bat eskainiz, gai korapilatsu hau aztertu du toponimia, lexikoa eta izkribuen datuetan oinarrituz, nahiz ondorio zehatz garbirik zaila den ateratzen.

Hizkuntza-ezaugarriei buruzko irizpide teoriko-metodologikoetarako ere kapitulu bat gorde du Caminok, laugarrena. Atal honetan zein ezaugarri hautatu eta zein baztertu diren, zein diren eskusibo eta zein emankor edota sistematiko aztertzen da, eta zein irizpidetan oinarritu batzuekin ala besteekin gelditze-ko. Bai baitakigu hizkera baten ezaugarriak bezain garrantzitsuak direla hizkera hori aztertzeko erabilitako ikuspegi teoriko-metodologikoak. Saiatzen da “hego-nafarrera” delako hori erakuts dezaketen tasun definitzaile horiek badaudela frogatzen eta horretarako, ikusten du zein irizpide hartu duten orain arteko dialektologariek.

Gizataldeen ibilera sozio-historikoz kapitulu interesgarri bat idazten du. Ikuspegi humanistiko honen bidez aurki daitezke hizkeren ezaugarriak azaltzen duten hainbat giltza. Aztertutako tokien orografiari buruz datu zehatzak ematen ditu, horietatik ulertarazten digute hizkeraren nolakotasunaren hainbat arrazoi.

Bosgarren eta seigarren ataletan, hurrenez hurren, hego-nafarreraren ezaugarri nagusiak eta gaineratekoak ditu aztergai. Atal hauetan Caminok maisuki alderatu eta ponderatzen ditu ezaugarri eskusiboak, ia eskusiboak, izaera arkaikoa erakusten dutenak, erdialdeko berrikuntzak eta mendebaldetik, ekialdetik eta ertzetik ukitzen dutenak. Ez da

nolanahiko lana hau, dialektoen ikuspegi sakona eta zorrotza eskatzen du lan honek, ezagaurri bakoitza –fonologia, fonetika zein sintaxi arlokoa– nongoa den eta zein eragina duen euskalki honetan jakin ahal izateko.

Erabilitako iturriei dagokienez, tokian tokiko eskuizkribu eta egile guztiak ikertzeaz gain, Caminok ederki ezagutzen du hemendik kanpo egiten den ikerkuntza dialektologikoa, alegia, atzerriko ikertzaileen itzala nabari zaio lan guztian zehar. Hizkerak sailkatzeko irizpideez badaki zeini eman garrantzia, zein ezaugarri hartu, zein baztertu, zein diren ezaugarri eskusiboak eta zein garrantzi eman sistematikotasunari eta emankortasunari.

Muga geolektala ezartzeko 158 ezaugarri aztertu ditu eta ehunka hitz eta aldaera. Era grafikoari dagokionez, Donostiako ikertzaile honen mapa batean islatzen du hego-nafarreraren barruko aldaerak, eta, honenbestez, hauxe da liburu honen ekarpen grafiko aipagarrienetarikoa bat, aurreko ikerketa guztian oinarritu dena. Honatx liburu honetan proposaturiko aldaerak: mendebaldekoa, hegoaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa.

Eta sailkapen honetan guztian, Caminoren ustez, Nafarroako ipar-erdialdea da alde ilunena. Dialektologari honek ondorioztatzen duenez, orografiak badu zerikusirik hizkeren nolakotasunean, horrela, Andimendiak eta Iratik hizkuntza etena sortzen dute. Azkenik, Bonaparteren hegoaldeko eta iparraldeko goinafarrera banaketaren funtsaren sailkapena gainditzeko ordua dela uste du Caminok. Izan ere, bere ustez, orain arteko lanetan ez dira alderaketak behar bezala ponderatu eta konbinatu.

Liburuaren bigarren zatia, azkeneko kapitulua, corpusaren atala

da. Horretan, orain arte hego-nafarreraz egin diren izkribu guztiak miatu ditu Caminok, ikuspuntu kritikoz, dialektologikoki fidagarriak diren ala ez ikusiz. Izan ere idazki batzuetan ageri diren ezaugarriak ez dira idazlearen herriko edo ibarreko idazkerari dagozkionak eta hau, azterketarako oztopo handia gerta daiteke.

Esan bezala, bada, corpusaren atala zehatz-mehatz bildu du, behar bezala sailkatu ondoren. Horrela, testuek batasun kronologikorik ez duten arren, ibarrik ibar sailkatzen ditu, XVIII. mendetik hasirik gaur egun arte. Ondoren, beste sail batean "idazle jantzien testuak" deituriko atala dator, beste batean, testurik zaharreneen berri ematen digu, XVI. mendeko eta ingurukoak eta azkenik, beste testu solte batzuk ditugu. Bukatzeko, hego-nafarreraren inguruko ibarretako testuak biltzen ditu: Zaraitzukoak, Odietakoak, Arakilgoak eta hego-nafarreratik kanpo dauden mintzoetarik lagin bat ekartzen du. Orobat, garrantzi berezia daukaten testuak: XX. mendekoak

ahoz bildurikoak eta aurreko mendeetan idatzirikoak. Hala eta guztiz ere, eta ikertzaileak aitortzen duenez, lan hau datu urriekin osatu behar izan du, hainbatetan nahi baino testigantza gutxiago dagoelako.

Bukatzeko bibliografia atala dator, benetan aberatsa, gaurkotua eta behar bezala sailkatua. Lehenik dialektologia orokorrari erreferentzia egiten diona, bigarrenik euskal dialektologiaren lanen ingurukoa eta hirugarrenik corpusaren atalari dago-kiona. Laugarrenik eta bukatzeko, "Bestelakoak" izenburuan gisa guztietako argitalpenak, geografikoak, historikoak etnografikoak sartu ditu.

Ondorio gisa esan dezakegu Caminok ez duela ikusten Hego-nafarrera euskalkitzat, haren ustez ez du honetarako aski nortasunik, eta nafarreraren dialektotzat jotzen du. Esan bezala, munta handiko lan baten aurrean gaude, Nafarroako euskararendako ekarpen garrantzitsu bat suposatzen duena.

Orreaga Ibarra Murillo

FLV-EN AZKEN ALEETAKO AURKIBIDEAK  
ÍNDICES DE LOS ÚLTIMOS NÚMEROS DE FLV  
INDEX DES DERNIERS NUMÉROS DE FLV  
INDEXES OF THE LAST ISSUES OF FLV

2001, 87. Arthur HOLMER /Bengt SIGURD. Implementing Basque Grammar on the Computer. Patxi SALABERRI ZARATIEGI/Peio KAMINO KAMINONDO. Aditz trinkoen orainaldiko formak Luzaideko euskararen. Iñaki GAMINDE. Jatabeko morfologiaren azentuaz. Pello ETXANIZ. Tratamenduen bilakaera, to eta no. Iker Joseba LAKA GUENAGA. Los pronombres en Euskera. Patxi SALABERRI MUÑO. Gai-harrikatzea eta testu-kidetasunak *Gerón*. José Antonio SAURA RAMI. El macrotopónimo vasconico Grist-Eriste: intento de explicación etimológica y conciliación fonética. Hector IGLESIAS. Azterna germanikoa Euskal Herriko toponimia historikoan. Goio BAÑALES/Mikel GORROTXATEGI. Testimonio euskérico de 1712 en Barakaldo. PUBLICACIONES.

2001, 88. Vahan SARKISIAN. El ergativismo del euskera: intento de una reconstrucción interna. Hector IGLESIAS. Notas sobre un nombre presuntamente galaico y “vasco-ibérico” seguidas de unas observaciones en torno a una famosa inscripción ibérica. Vladimir ZYTSAR/Yuri VI. ZYTSAR. Sobre el origen del numeral “uno” en las lenguas de Eurasia partiendo del vasco. Fabián GONZÁLEZ BACHILLER. Antroponimia vasca en la documentación de Santo Domingo de la Calzada (La Rioja) de los siglos XII y XIII. Henrike KNÖRR. Astronomy and Basque Language. Carlos JORDÁN CÓLERA. Del topónimo euskara de Pamplona. José Antonio SAURA RAMI. En la órbita del topónimo *Aiguallut*. José Luis ERDOZIA MAULEÓN. Etxarri-Aranazko leku-izenak. Koldo ARTOLA. Olaizko euskal eskuizkribuak. Joxemiel BIDADOR. Ultzamako beste euskal testu bat (1796). PUBLICACIONES.

2002, 89. Yuri VI. ZYTSAR / Roberto SERRANO. Sobre el origen del Analitismo en la lengua vasca. Víctor HIDALGO EIZAGIRRE. Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (i). Patxi ARIZABALO. Algunas consideraciones sobre la presencia del pluralizador verbal *-it-* en el dialecto vizcaíno, y en el *nor-nork* alocutivo de los dialectos orientales. Iker Joseba LAKA GUENAGA. La forma pasiva de *\*ditza + u > ditu*. Elena MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR. Intento de distribución geográfica del sufijo *-doi, -dúi, -di* en la toponimia de Álava. Hector IGLESIAS. Sur le toponyme *Gasteiz*: origine et signification. David ALEGRÍA SUESCUN. Una anotación en euskera en las cuentas del reino de Navarra a finales del siglo XIII. Jose María SATRUSTEGI. Ukar Itzarbeibarko doktrina (1865). Mikel OLANO IRURTIA. Gipuzkerazko sermoi bat Leitzan. Félix ZUBIAGA. El pobre de Nippur y Mattin Motela.

2002, 90. Jesús RODRÍGUEZ RAMOS. La hipótesis del vascoiberismo desde el punto de vista de la epigrafía íbera. Yuri VI. ZYTSAR / Alexey ZYTSAR. Para una tipología y etimología de los numerales 8 y 9 como derivados desde 10. Iñaki GAMINDE. Leioako azentuaz. Inaxio LOPEZ DE ARANA ARRIETA. Eibar eta Oleta herrietako hikako tratamenduak. Jose Luis ERDOZIA MAULEÓN. Bakaikuko hizkera. Patxi SALABERRI MUÑO. Etxeberri Sarakoaren “Eskual-Herrico Gazteriarri” eta kultura klasikoaren transmisioaz. José María SATRUSTEGI. Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1967-1976). Josu GÓMEZ PÉREZ / Asier ROMERO ANDONEGI. Un texto de 1846 en euskera de Bermeo: la fundación de la Cofradía de las Benditas Ánimas del Purgatorio.

2002, 91. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak. 1 - Eaurta (hasiera). Vahan SARKISIAN. La etimología del vasco *ezker* “izquierdo” (reconstrucción interna). Xabier ARTIAGOITIA. *-(t)ar* atzizkidun hitzen jokabide sintaktikoaren inguruan. Iraide IBARRETXE-ANTUÑANO. The conceptual structure of Basque *buru* ‘head’. Orreaga IBARRA. Erroibarko eta Esteribarko oikonimoak (i). Jose Luis ERDOZIA MAULEÓN. Bakaikuko leku-izenak. Iker Joseba LAKA GUENAGA. La forma pasiva de *\*Zitzan + U > Zituen*. Henrike KNÖRR. Una novela singular: *Peru Abarka*.

2003, 92. Vahan SARKISIAN. La formación del infinitivo en el euskera (reconstrucción interna). Víctor HIDALGO EIZAGIRRE. *Zein* (eta *Bait-*) erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (iii). Iker Joseba LAKA GUENAGA. La forma pasiva de *\*Ditza + (U) + N > Ditzan*. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak. (2 – Eaurta: jarraipena). Mikel OLANO IRURTIA. Pagoaren izenaz eta izanaz, palinologiaren argitan. Orreaga IBARRA. Erroibar eta Esteribarko oikonimoak (ii). Rufino GÓMEZ VILLAR. Toponimia vasca en la comarca de Belorado (Burgos). Fernando MIKELARENA PEÑA. La evolución demográfica de la población vascoparlante en Navarra entre 1553 y 1936.

2003, 93. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak. (3 – Eaurta: bukaera). Philippe ETXEGORRI. Jeruntzeo Üskara. Ekialdeko euskara. Iñaki GAMINDE. Intonazio ereduak Zeanurín. Yuri ZYTSAR. Sobre el origen de ciertos términos somáticos del euskara (cara y otros). Patxi SALABERRI.

On hypocoristic formation in Basque. Jabier SAINZ PEZONAGA. Antroponimia medieval euskérica en la Ribera tudelana. Mary C. IRIBARREN. Vocablos de tipología vasca en el italo-romance. Otra hipótesis de contacto de lenguas

2003, 94. Jose Mari SATRUSTEGI. Hitzaren artelana. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak. (4 – Otsagi: esaldiak). Iñaki CAMINO. Hego-nafarreraren egituraz. Fabián GONZÁLEZ BACHILLER. Navarro y riojano *yasa*, vasco *jasá*: ¿paleoeuropeo *\*isa* / *\*aisa*? Pedro DE YRIZAR. Evolución del Euskara. Pedro URIBARRENA / Roberto GONZÁLEZ DE VIÑASPRE. Toponimia en lengua vasca de Mañauri (Condado de Treviño). David L. GOLD. We do not know whether Jews in Sefarad 1 spoke or wrote Basque.

2004, 95. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak (5 – Otsagi: ahozko testuak). Jose Luis ERDOZIA MAULEON / Patxi FLORES LAZKOZ. Lizarragabengoko hizkera. Peio KAMINO KAMINONDO / Patxi SALABERRI ZARATIEGI. Nafarroa Behereko hiru eskutitz. Karmele ROTAETXE AMUSATEGI. -(e)ta enklitikoak sailkapen eskalarrean. Ivan V. ZYTSAR. Sobre el componente vasco del fonosistema español (I). Santiago PÉREZ OROZCO. Sobre la sintaxis del ibérico. Yuri VI. ZYTSAR. Correspondencia Y. Zytsar-L. Michelena.

2004, 96. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak. (6 – Ezkaroze). Edu ZELAIETA. Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrera (I). Estibalitz MONTOYA. Urdazubi eta Zugarramurdiko euskararen norabidea. Irantzu EPELDE. Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz. Izaskun ETXEBESTE / Koro SEGUROLA. *Zuhaitz* eta *Enbor* hitzen adiera. EHHHA-n bildutako datuen argitan. Peio KAMINO KAMINONDO / Patxi SALABERRI ZARATIEGI / Juan Jose ZUBIRI LUJANBIO. Luzaideko hizkera adierazkorra. 1. Sakreak. Ricardo URRIZOLA HUALDE. Valdizarbe y el euskara en el siglo XVII. Roberto SERRANO. El caso Ergativo. Concepto general y tipología, con atención especial a las lenguas kartvélicas y al euskara. Homenaje del Ateneo Navarro/Nafar Ateneoa a Jose Mari Satrustegi, Pamplona/Iruñea, 30 de mayo de 2003.

2004, 97. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak. (7 – Orontze). Iñaki CAMINO. Nafarroa Behereko euskara. Jose Luis ERDOZIA MAULEON. Irañetako euskara. Iñaki GAMINDE. Tonuak eta etenak Gatikako intonazioan. Patxi SALABERRI ZARATIEGI. Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa. Balbino GARCÍA DE ALBIZU. El catecismo de Artaza. Nueva evidencia del euskera en Améscoa. Xabier KINTANA. Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan. David PETERSON. Primeras referencias a Guipúzcoa.

2005, 98. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak (8 – Espartza: taulak/esaldiak). Jose Luis ERDOZIA MAULEON. Sakanerak. Victor HIDALGO EIZAGIRRE. Eskuinetiko erlatiboak euskaraz, izen ardatzaren ondoretik (ere) hedatzen direnak (eta v). Ikuspegi orokorra. Karmele ROTAETXE AMUSATEGI. Gramatikalizazio-prozesu bat: baina enklitikoak. Ricardo URRIZOLA HUALDE. El euskara en la administración navarra a finales del XVIII. Tensa relación entre el Hospital y el Ayuntamiento de Pamplona. Roberto GONZÁLEZ DE VIÑASPRE / Pedro URIBARRENA. Toponimia histórica de Sáseta (Condado de Treviño) (I). Santiago PÉREZ OROZCO. Las consonantes laterales en las lenguas paleohispánicas.